Muchas veces hemos estado los espeleólogos en el borde de abismos negros, pero esto de los precipicios exteriores... esto es otra cosa, es diferente. Recuerdo el cercano Kantauriko Begia, descensos por el "Casco" de Salvada... ese momento en que abandonamos el confort del suelo firme por la tensión del arnés, en que lo fiamos todo al anclaje, a la instalación, ese momento, en fin, es diferente cuando literalmente nos arrojan al espacio exterior, donde la montaña, simplemente, deja de existir y desaparece. Una mezcla de ansiedad y zozobra previa da paso a cierta laxitud una vez suspendido en el vacío, seguramente debida a la concentración en los movimientos. Pero en el caso de Ogoño aún hay más, y es el telón de fondo del Cantábrico. Nada puede ser más elegante y grandioso a la vez.

Abajo, a casi 300 m, la mar choca contra la costa. Desde aquí arriba el rumor de la rompiente se percibe lejano y la superficie de las aguas engañosamente lisa. Un grupo de gaviotas pasa por debajo. Nosotros volamos por encima, como una suerte de danza majestuosa. Una vez metidos en faena, este primer tramo aéreo se resuelve rápido por una pared compacta de unos 40 m con ligeros desplomes.



Descenso de las primeras verticales, con la playa de Laga abajo







El Maelström desde la última plataforma de Leunbe

Rápel tras rápel nos plantamos en una cornisa bastante protegida, una especie de brecha que hace la pared, donde se han asentado algunos árboles. Estamos en el comienzo de la diagonal que cruza en sentido descendente sur-norte toda la cara oeste de la muralla de Ogoño.

## LA DIAGONAL DE OGOÑO

A partir de ahora la instalación continúa por terreno mixto, con tramos verticales de roca seguidos por otros de fuerte inclinación cubiertos por vegetación baja y algunos árboles que se interponen y hacen incómoda la progresión. El terreno es vertical o muy inclinado, y exige la cuerda en todo momento.

Veo muy abajo todavía la masa de agua, aunque el rumor de las olas ha aumentado. Todavía nos quedan por descen-

der más de 200 m. La instalación sigue ahora pegada a la pared de la diagonal, con un primer resalte vertical de unos 20 m bastante protegido.

Impresiona divisar abajo la cuerda siguiendo la vía, bien a través de zonas de vegetación, bien cruzando pequeños árboles, bien junto a la roca, pero siempre vertiginosamente hacia abajo, sin tregua. Después de otro resalte de 15 m en roca compacta atravesamos una pedrera y luego una larga rampa muy inclinada de hierba y maleza, donde la diagonal se ensancha relativamente.

Llegamos a la parte superior de otro resalte vertical, junto a un árbol, un laurel, que se hace especialmente incómodo porque la cuerda lo ha atravesado por el medio. Para evitarlo hay que desplazarse entre la pared y el maldito árbol, con cuidado de no pendular y acabar metido entre las ramas del árbol, como me pasó a mí.





## Era una sensación extraña, como si la inteligencia de los elementos se empeñase en mostrarnos aquel poderoso monstruo natural

Abajo, por fin, diviso Punta Leunbe, que no es más que un recodo de la montaña hacia el este con una especie de espigón estrecho de roca que se sumerge en la mar, como si se hubiese desgajado de la diagonal. Veo a Santi en el último cambio y bajo él las aguas se agitan tumultuosas, formando una miríada de volutas de espuma. En ese momento se suceden varios golpes fuertes de olas y aprecio cómo esa anarquía de formas se va ordenando, fusionando, para dar forma al gran remolino que hemos presentado en la introducción. Era una sensación extraña, como si la inteligencia de los elementos se empeñase en mostrarnos aquel poderoso monstruo natural. Entonces Santi grita ¡iii! "Maelstroooooom"!!! y yo a su vez le grito que se ancle y me de tiempo a reflejar aquello ante la cámara. Entonces el Maelström aparece y desaparece secuencialmente, dependiendo de los embates de la mar. Estoy unos 40 m más arriba y me estabilizo también. Nervioso, cambio el objetivo, atropelladamente. Saco varias tomas con el zoom, esperando entre la formación de un remolino y otro. Cuando estimo que ya he conseguido las imágenes voyeo a Santi para que siga. Pronto desaparece del cambio. Con ansiedad creciente, llego al último anclaje yo también. Me puedo asomar y el panorama es imponente. Veo el arranque de la vía Kresala, y a Gotzon maniobrando en la última instalación de la boca de la sima, que se abre a la derecha. Ya no es un rumor sordo de oleaje, ahora los golpes de la mar suenan graves, retumban en el terreno como pequeñas bombas. Me recreo en esta última vertical volada, bajando lentamente, hasta hacer pie en aquella plataforma.

Hemos llegado a Punta Leunbe, junto a la sima de su nombre.

## DONDE BATEN LOS MARES

Otro sector de la diagonal se muestra después de superar el anclaje al árbol. Un tramo que no se puede ver hasta llegar a este lugar. El descenso afronta sus últimas rampas con un primer resalte casi vertical y a continuación otra zona de maleza. La diagonal se estrecha. Nos acercamos a la gran pared y un poco más abajo a la derecha, en la base de la muralla, se abre la boca de una cueva con un pequeño rellano en el porche, bastante protegido de aquel mundo inclinado, que nos permite un respiro y una reunión. La mar se acerca, se ve más arrugada. La rompiente se percibe cada vez más claramente.

Sentados en aquel pequeño abrigo disfrutamos de la pequeña tregua. Todavía no se ha visto claramente Punta Leunbe, pero falta muy poco. Gotzon sigue instalando el descenso, Santi continúa también, y yo me preparo para seguirle cuando me dé vía libre.

Aterrizo en la plataforma final, junto al borde de la sima. El lugar es inigualable, una ventana abierta en el acantilado junto a la boca superior de la sima. La roca húmeda y casi negra; el furioso Cantábrico peleando sin cesar contra Punta Leunbe; el Maelström casi a tiro de piedra abriéndose sobre las aguas; aromas de salitre; los estallidos de espuma emergiendo por la sima; los golpes de la mar tronando...

Sublime espectáculo natural, formidable y emocionante. Apenas hablamos. Cada uno sabe lo que tiene que hacer. El corazón del gigante Ogoño nos ha permitido llegar a él, aunque por muy poco tiempo, apenas una hora de bajamar. A las 12.40 era la cita, y por ahora no hemos fallado, hemos llegado justo en ese momento. Ahora hay que moverse rápido para registrar las últimas tomas. Me anclo al pasamanos para asomarme con la cámara al borde de la sima.





Sobre el pozo de Leunbe, con las olas entrando por la base



Instantáneamente, revienta otro golpe de mar y una explosión de espuma asciende violenta por la sima hasta casi nuestro nivel. En lo alto se abre en miles de copos blancos que caen a continuación de nuevo a la sima, más suavemente, y se desvanecen. Es impresionante. Nos miramos sin decir palabra...

No hay mucho tiempo, Zutoia, tú tienes buzo rojo... le echa valor y no duda, se cuelga del último anclaje, en la cabecera de la sima. Mientras tanto, Gotzon, que no para, ya ha preparado otro seguro a la derecha de la boca, donde se domina mejor el pozo y el fondo con las olas entrando y rompiendo. Disparo sin cesar planos desde el primer y el segundo punto de visión, atando el trípode con los compañeros atentos a la instalación de seguros. Parece que los golpes de mar nos están dando un pequeño respiro.

Sin pausa, sigo tirando imágenes. Zutoia espera pacientemente colgada todo ese tiempo... pienso en cuántos espeleólogos han aguantado en malas posiciones para hacer posibles mis tomas. Por fin, unos minutos después, llega la hora de ir recogiendo los trastos y tirar para arriba.

## EL ASCENSO

Para arriba, hay que tirar para arriba. El tiempo de bajar se agota. Se establece el orden. Santi y Zutoia salen primero, mientras yo voy recogiendo el equipo de foto. Cuando cojo la cuerda, me cuesta subir, un croll estrecho que estreno hoy no tira bien, porque forma un ángulo forzado que se lleva la cuerda a cada impulso. Además, no me he puesto el Pantin. Tardo más de lo que creía en llegar al anclaje.

Intento disfrutar del momento. Al haber cogido altura de nuevo, diviso todo el entorno de Leunbe. En esto, un fuerte golpe de mar bate la sima, y expele por la boca un buen chorro de espuma y agua que alcanza a los compañeros que esperan turno abajo, Oier y Gotzon. La tregua de la bajar ha terminado. Hay que salir de allí.

Reacciono rápido para dejar la cuerda libre y salgo del anclaje. Afronto la cuesta de hierba que viene a continuación, y al acercarme de nuevo a la repisa de la pequeña cueva, oigo a Santi, sin verlo todavía. Me tiene deparada una grata y reparadora sorpresa.

"¡A comer! Es hora de reponer fuerzas" ha gritado. Ha cocinado un caldo consistente con el hornillo, incluso ha dispuesto con una saca vacía un buen asiento en el único rellano, justo para una persona, que me ha reservado.

Continúo hacia arriba poco después. El ascenso se va haciendo penoso, pues el terreno sucio y el ángulo sobre la cuerda hacen torpe la progresión. Voy sorteando varios árboles como puedo, menos el mismo que me dio problemas en el descenso, que atravieso como buenamente puedo, prácticamente por el interior de las ramas.

Otro problema serio es el de las piedras, que constantemente se desprenden y cogen pendiente por la diagonal. Hemos decidido llevar las sacas en la espalda para evitarlo en la

medida de lo posible, pero no es suficiente, y continuamente tenemos que vociferando "¡piedraaa!".

Los últimos rayos de sol de la tarde se muestran generosos desde Sollube y bañan suavemente la muralla de Ogoño. Nos dan de lleno desde las zonas más despejadas. Se divisa la isla de Izaola a contraluz, emergiendo de un brillante espejo de mar. Al fondo, Bermeo ya se ha sumido en las primeras sombras de la noche.

## Abajo seguirán rompiendo las olas contra las rocas, la mar contra la montaña, el Maelström contra la cueva, es una lucha de gigantes...

Subo por fin el resalte vertical que da paso a la repisa bajo las verticales de Talaia y pone fin a la larga travesía por la diagonal. El riesgo de piedras ha desaparecido, y hacemos un pequeño descanso. Ya solo quedan los últimos 40 m verticales, que serán más cómodos y limpios que el terreno de la diagonal.

Talaia nos recibe de nuevo. Nos vamos juntando arriba, cuando el vértigo da paso a los pies en la tierra. Oscurece y nos adentramos ahora en el caliginoso encinar cantábrico, el mismo de los Tremendos de Kanala, que ahora se va durmiendo entre las sombras.

Ogoño ha vuelto a ser nuestro gigante acogedor, nos ha permitido llegar hasta Punta Leunbe y nos ha mostrado su Maelström. Nos ha vuelto a llenar de vida. Regresamos a Elantxobe a la luz de los frontales. Por el camino voy pensando que abajo, en Punta Leunbe, seguirán rompiendo las olas contra las rocas, la mar contra la montaña, el Maelström contra la cueva. Lucha de gigantes...

Foto del grupo junto a la boca de Leunbe







#### TEXTO Y FOTOS



Lur Gil Rey  
(Elkarte, Nafarroa, 1992)

Mendizalea, hainbat jardueratan aritua: alpinismoa, mendiko eskia, eskalada, arroila jaitsiera, espeleologia, mendi lasterketak... Berriozarko BKE Mendi Eskolako eta Herri Kirol taldeko arduraduna.

# MENDIKO ESKIA SVANETIAN

**Neguak garai bateko atmosferaz betetzen du Georgiako Svaneti eskualdea. Ia erabat isolatuta uzten ditu Mestia eta inguruko herriak, eta Kaukasoko hartzek bezala, udako turismoaren zain hibernazioa hasten du eskualdeak.**

**Abendua eta urtarrila dira abentura maite dugunontzat bertaratzeko garairik egokiena.**

Kaukasoko mendiek iparraldetik eta mendebaldetik jasotzen dituzte elurterik gogorrenak negu hasieran. Horregatik, Kaukaso Handiko mendiez gain, Kaukaso Txikikoek ere interes handia dute mendiko eskian jarduten dugunontzako. Itsaso Beltzetik sortutako hezetasunaren ondorioz, elurra

tonaka botatzen du Georgiako hego-mendebaldean. Itsas-mailatik 2.000 metrora kokatutako Bakhmaro herria da B plana. 2.700 metrora arteko mendi lauak ditu eskualdeak, mendiko eskirako oso aproposak.

A plana Mestia ingurua da. Abendua elurte handiak izateko goiz izan arren, hila-

bete osoan elurte gogorak jaso ditu Svane-tiko eskualdeak, eta ziur gaude nahikoa elur izanen dugula. Helburua, beraz, ezarrita.

11 laguneko espedizioa antolatu dugu Berriozarren, BKE Mendi Eskolako kideak denak. Abenduaren 26a egun handia da herrian, jai txikiak. Kideetako batek, Iker





Sgimieuki (3183m) mendiko gurutzera iritsi aurreko ertzaren azken partea. Eskuinean Ushba

Goldarazanak, harri-jasotze txapelketan parte hartu ostean, material guztia auzoetan sartu eta Bartzelonara abiatu gara. Petateetan eskiak, arropa, alpinismoko materiala, eta tresna ugari (informatikoak, segurtasunerako eta komunikaziorako).

Arratsaldean Kutaisin lur hartu (Georgiako bigarren hiririk handiena) eta 4x4 ibilgailuetan Svanetirako bidea hartu dugu. Hala ere, Inguri ibaiak sortzen duen 140 kilometroko bailara estuan sartu aurretik, Zugdidi hiriko kanpoaldean pasako dugu lehenbiziko gaua. Mingrelia eskualde historikoan dago kokaturik, Kaukasoko etnia ugari dauden lurraldean. Mingreliarren eta Abkhaziarren arteko gatazka armatua gogorra izan zen Sobietar Batasuna desagertean, eta Zugdidi bizi dira, egun, Abkhaziatik ihes egin zuten milaka Mingreliar.

Egungo sententzia bat, lautadako azken herria pasa eta Inguri bailaran sartu gara. Urtegi

erraldoi batek eman digu mendietarantzko ongi etorria, Jvari herriaren gainean. Meliton Kantaria sobietar soldaduen jaioterrria da, Bigarren Mundu Gerra amaierako argazki ospetsuan ageri den soldadua da; Berlingo Reichstag eraikinean SESBeko bandera heldzen ari den soldadua.

### **Aldaketa handia jasan du Mestiak azken urteotan, Kaukasoko eskualderik isolatuena izatetik, mendiko turismoa jasotzera pasa da**

Abenduaren amaierako elurte handia ikusten hasi gara bailaran sartu orduko. Lehenbiziko mendiak ikusten hasiak gara bailararen bi aldeetan, 4.000 metro ingurukoak: Shtavleri (3.993m), Tsalgmil (3.999m) eta Dinguzorum Glavni (4.454m)

iparraldean, eta Laila Peak (4.009m) hegoaldean, azken hau eskiatzeko egokia. Mestiara (herririk handiena) gerturatzean ikusiko ditugu, Kaukasoko Erreginarenean bi tontorrek; Ushba (4.710m) mendiaren bi tontorrek.

Aldaketa handia jasan du Mestiak azken urteotan. Kaukasoko eskualderik isolatuena izatetik, mendiko turismoa jasotzera pasa da. Ezin diogu oraindik masa-turismo deitu, baina udan, jendetza biltzen da bertako paisaia ederraren bila. Negu amaieran eta udaberrian ere turismo modu berri bat jasotzen hasia da, eskiatzaileena zehazki. Bertako bi eski estazioetara (Tetnuli eta Hatsvali) zein mendiko eskia egitera gero eta eskiatzaile gehiago hurbiltzen dira martxo aldera.

Gu abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra izan gara bertan, eguberri ortodoxoaren aurretik, eta eski estazioek turismo erru-




## GEORGIA

siar eta asiarra biltzen duten arren, jende kopurua txikia da. Mendian berriz, turismoaren arrastorik ez.

Zazpi egunez aritu ginen jarduerak egiten. Horietako bi, bertako bi eski estazioetan: Egun batean, eguraldi kaxkarraren ondorioz arriskurik gabe aritzeko, eta bestean, urteberri egunean, chacha likorearen eta Georgiako ardoaren biharamuna pasatzeko, halaberharrez. Hona hemen gainerako bost jarduerak:

### MESTIA – HATSVALI ESKI ESTAZIOA



Elurte berria probestuz, Mestiara iritsi garen egunean bertan, arratsaldeko ibilbide labur bat egitea erabaki dugu. Herriaren kanpoaldean daukagun etxetik bertatik eskiak jantzita atera eta herria gurutzatuko dugu, Hatsvaliko eski estaziara igotzen den lehenbiziko igogailura arte. Bertatik, oinezko bide seinalizatua jarrai daiteke hegoalderantz, basoan barrena.

Olaia Guli lepotik behera, Mazeri bailarara bidean



Ibilbidea ez da batere eroso, batzuetan bidetik, besteetan erreka bazterretik zein zuhaitz artetik, bidea asmatuz. Hala ere, eskiak kendu beharrik gabe, errepidea gurutzatzen den tokira iritsi gara, eguna iluntzen ari denean. Bidexkak errepidea gurutzatu eta eski estaziolaraino jarraitzen du, ondoren basoz estalitako Hatsvali (2.341m) tontorreraino.

Gu tontorreraino iritsi gabe itzuli gara, eguneko azken argiekin, eta elurrez estalitako errepidetik egin dugu herrira bitarteko jaitsiera, txakur erasokor batzuen artetik. Lehenbiziko arratsaldea izateko, aski. Ushban, Eguzkiaren azken izpi gorriak desagertzen ikusi ditugu, herria frontalak jantzita zeharkatu aurretik.


### TETNULDIKO ESKI ESTAZIOA – SGIMIEUKI (3.183m)

Abenduaren 29a da, eta oraindik ez dute ireki Tetnuldiko eski estazio berri samarra. Igogailu lerro bakarra dauka estazioak, hiru zatitan banatuta, eta bizpahiru jaitsiera. Baina freeridean aritzeko paradisua da, alde batera zein bestera amiltzen diren magalek aukera ederrak eskaintzen dituzte.

Guk estazioaren babesean kudeatuko dugu elur-jausi arriskua, handia baita. Irargarpen ofizialik egon ez arren, estazioko langile batek 4. mailako arriskua dagoela adierazi digu, berriki botatako elurte handiaren eraginez.



Hamaika lagun gara, eta arrisku handiegirik ezin dugu hartu, baina jarduera polita egiteko aukera ematen digu inguruak. Eski pistetatik gertu igo dugu ia 1.000 metroko desnibela, zatirik leunenak bilatuz. Horrela iritsi gara Sgimieuki eta







Ushguli herritik Shakra glaziarrera bidean, Enguri ibaiaren ondotik

Ldzhira mendien arteko lepora. Bertatik, Kornisa handiak alde batera utzita, ertz eder batetik gora, segituan gara Sgimieuki (3.183m) mendiko tontorrean.

Bitan banatu dugu taldea. Talde batek mendebaldetik ekialdera egin du ertza; besteak, kontrara. Baldintzek eskiak kendu eta oinez egitera behartu gaituzte, zailtasun tekniko nabarmenik egon ez arren.

Ikuspegia ederra da. Ekialdean Tetnuldi mendiko piramide perfektua, iparraldean Errusiako mugako zenbait mendi, batzuk lau milakoak, mendebaldean beti presente dagoen Ushba, bere aurpegi ederrena erakutsiz, eta azpian Inguri ibaiak sortzen

duen ibar erraldoia. Hegoaldean, berriz, elurrezko itsasoa, 3.000 metro inguruko mendi leun infinituez osatuta.

Jaitsierak bi aukera eskaintzen dizkigu. Interesgarriena hegoaldera jaitea da, Adishi herriraino. Mila metrotik gorako jaitsiera ederra da, baina azpiegitura aldetik ez da erosoena, autoz bertara iritsi behar baita, eta ordubetetik gora egin behar da autoan. Garai honetan, gainera, isolatuta dago Adishi, eta ziur, zailtasunak izanen genituzke bertaratzeko.

Gure hautua eski estazioko inguruetatik jaitea izan da, elur-jausi arriskua saihesteko asmoz. Kalitate handiko elur

hautsa aurkitu dugu jaitsiera osoan zehar, ia 1.000 metroko jaitsiera luzean. Erabat asebate gaitu jarduera honek.

---

**Ikuspegia ederra da: ekialdean, Tetnuldi mendiko piramide perfektua; iparraldean, Errusiako mugako lau milakoak; mendebaldean, beti presente dagoen Ushba, eta azpian Inguri ibaiak sortzen duen ibar erraldoia**

---



## GEORGIA

Elur-jausi arriskua txikiagoa denean, Sgimieukiko lepotik Ldzhira (3.469m) edo Kaseb (3.360m) mendietara igotzeko korridore ederrak ikusten dira, alpinismoa maite dutenentzat aukera polita.

### USHGULI – SHKARA GLAZIARRA


Ushguli herri ingurua oso aproposa da mendiko eskian jarduteko. Hegoaldean mendigune interesgarria dauka, eta iparraldean, 5.000 metro arteko menditzarrak. Elur-jausi arriskua ikusita, herri ondoko Lmria mendia jarri dugu helburu moduan, 3.033 metroko piramidea.

Elurtearen ondorioz, ia erabat isolatuta dago herria. 4x4 ibilgailuekin zailtasun handiak izan ditugu iristeko, eta palak zein auto batetik bestea tiratzeko zingilak behin baino gehiagotan erabili behar izan ditugu. Bi orduren bueltan Ushgulin gaude, eta herritarrak harrituta. Oraindik inor ez da etorri Ushgulira aurten, esan digute.

Sorpresa txar bat izan dugu herrira iristean. Mendia elur-jausiz betea dago, nonahi. Hasiera batean, ingurune segurutzat genituen maldak ere bai. Ezinezkoa zaigu Lamriarako bidea egitea, eta iparraldera sartzen den ibarretik ibilbide lau samarra egitea erabaki dugu.

Enguri erreka ondotik gora goaz pixkarena, ezkerrera zein eskuinera elur-jausiak utziz. Aurrean, iparraldean, inguruko mendirik altuena aurkitu dugu, 5.193 metroko Shkara menditzarra, Errusiarekin muga egiten duena. Edozein aldetatik menderaezina ematen du.

Mendi horretako horma bat aurrean dugarik, hegoaldeko glaziarrera bideratu



gara, ikuspegi horrekin konformatuz. Bidean, hala ere, bi elur-jausiren arrastoak gurutzatu beharrean gaude. Ibarra estutu egiten da aurrerago, eta alde bateko zein besteko elur-jausiak errekaraino iristen dira. Ez gaude arrisku gehiago hartzeko prest eta atzera egitea erabaki dugu.

Bueltatzean, baina, aukera politak eskaini dizkigu herri inguruak. Lamaria monasterio historikora igo gara bueltan, eta taldeko gainerakoak bide normaletik doazen bitartean, Endikak eta biok ondoko muinotxoak igotzea erabaki dugu. Bertatik herrirako bidea hartu dugu, eskiekin zeharkatzeko asmoz.

Herrira sartu baino lehen, elur-hautsez beteriko izugarritzko malda dugu, baina laburra da, eta segituan herrian sartuko gara. Bertan, etxe eta defentsarako dorre ederren artean eski-jaitsiera izugarria izanen dugu, kale estuetatik barrena, behi artean. Uste baino luzeago egin zaigu herria zeharkatzea, eta gozatu ederra hartu dugu herri barruko eski modalitate horretan. Gure gomendioa kontuz joatea da, herritarrekiko eta azientekiko errespetuagatik. Hala eginez gero, aurrerantzean ere horrelakoak egin ahal izango ditugu, bestela, nekez.





Sgimieuki (3183m) gailurreko irudia, dronetik aterata. Atzean, Svanetiako mendirik altuenen panoramika, eskuinean Ushba


## BAGVDANARI (MAZERI) – GULI (2.926m)

Mazeri bailarako Bagvdanari auzo edo herrixkatik abiatu gara gaurkoan. Behiez beteta daude kaleak, eta lehenbiziko tartean haiek lagun ditugula abiatu gara. Mendian, berriz, ohikoak bihurtu diren arerioak, elur-jausiak. Norabide guztietan ageri dira purgak, baina Guli lepora doan bideak segurua ematen du. Hala ere, erme goaz denbora osoan.

1400 metroko desnibel positiboa dago leporaino, ia 3000 metroko altuera gain-

ditzeraino. Bertako ikuspegia ederra da; Ushbak beste aurpegi bat erakutsi digu, hegoaldekoa. Iparraldera begiratuz gero,

Ushbaz gain, Errusiarekin muga egiten duten menditzar guztiak ageri dira, harrisi baten moduan. Hegoaldean, Inguri





## GEORGIA

ibaiaren arroak sortzen duen sakonunea, eta Laila Peak ederrarekin batera, bere inguruko menditzarrak.

Lepotik gertu dago Guli Peak (2926m), eta denbora gutxian gerturatzeko aukera ematen du. Hegoalderantz jaitsiera labur bat egin ondoren, ertz eroso batek bereizten du tontorra aurreko lepotik. Iparraldean, berriz, Gulbara (3.725m) bidean, 3.300 metroko tontor bat dago, baina bere izenik ez dugu aurkitu. Gulichala izena izan dezake, ondoko lepoak bezalaxe, baina ezin dugu ziurtatu.

Elurrak haize bolada handiak jasan ditu bertan, eta kranpoiak jarri beharrean dira bertaratu diren taldeko hiru kideak. Jaitsiera ere horrelaxe egingen dute leporaino, bertatik 1.400 metroko eski jaitsiera luzeaz gozatu aurretik.

### Ushbak beste aurpegi bat erakutsi digu, hegoaldekoa. Iparraldean Errusiarekin muga egiten duten menditzar guztiak, harresi baten moduan. Hegoaldean, Inguri ibaiaren arroak sortzen duen sakonunea eta Laila Peak

Mota guztietako elurra dago, oro har, hego-mendebaldetik egindako jaitsieran elur-hauts ederraz gozatzeko aukera izan dugu, elur gogorragoa ere topatu izan dugun arren.

Gabon zaharra da, eta Svan kulturaren murgiltzea dagokigu orain; janari, edari eta musika tradizionalaz inguratuta sartuko gara 2024. urtean.

### BARSHI (ETSERI) – TSIRNIARI/BAK (3.206m)

Ibar bat urrunago joan gara gaurkoan, Mazerira. Mestiatik ordubetera dago, eta bertan amaitzen da errepidea, neguan behintzat. Gaur ere behiz inguratuta jantzi ditugu eskiak, eta iparraldean doan pista batean gora egin ditugu lehenbiziko kilometroak, eskiak jantzirik.

Bideak zirku eder batera eraman gaitu. Itxura ederra duen Cherinda mendiak




Ushba eta bere inguruak, Tetnaldi eski estaziotik ikusita

(3.579m) mugatzen du skylinea, justu iparraldean. Haren ondoan Tsymzagar (3.282m), Simzagari (3.314m) eta Tsimiari (3.206m). Ertz osoa egiteak jarduera ederra dirudi, eta egingarria udaberri aldera. Baina, gu, eskiatzeko magal interesgarrien bila abiatu gara.

Bak lepora abiatu gara. Tartean zenbait artzain-etxola igaro ditugu, elur azpian nekez ikusten direnak. Ondoren, bidea tenteago jarri da, eta sigi-saga eginez, 800 metroko desnibela azkar xamar gainditu dugu. Purga bat zeharkatu dugu, baina bidea seguru nabaritu dugu. Bestelakoak dirudite ordea hego orientazioa duten zirkuko magal ederrek. Izotza eta elur eze-gonkorra dute, arriskutsu daude, eta beste helburu batzuk ezartzea erabaki dugu. Itxura ederra du zirkua hego aurpegiak, beste batean jaisten saiatuko gara.

Bak lepoak 2.416 metroko altuera du, eta bertan bi talde egin ditugu berriz ere. Indartsuenak iparraldean abiatu gara, Tsimiari (3.206) mendira. Eskiak laster kendu behar izan ditugu, izotza eta haizeak jotako elurra aurkitu ditugulako; kranpoiak

jantzita gainditu dugu 600 metroko desnibela. Bigarren taldeak hegoalderantz jo du, Detsili (2.578m) gailurrera. Bak lepotik ertz batek bereizten du, baina haize gogorrak elur ugari bildu du ekialdean, eta arriskutsuegia da ertza bertatik zeharkatzea. Metro batzuk jaitea erabaki dugu, larruak





zorik izanen. Kotxeraino eskiak jantzita iritsiko gara herriko sarrerara.

## AZKEN GOGOETA

Hamaika laguneko taldea izan gara Geor-giako Mestia inguruan mendiko eskia egiten. Ez da kopururik egokiena, eta abendu-urtarrila ez da garairik egokiena ere, elur-jausi arrisku handiagatik. Ez dugu sekulako jarduerarik egin, eta ez gara 3.500 metrotik gora ibili.

Hala ere, txanponaren beste aldeari erreparatuz, honako hauetaz gozatu ahal izan dugu: bakardadea, abentura, bertakoekin murgiltzea... Joan zen urtean ere, garai berean, Islandiako iparraldean izan ginenean, bakar-bakarrik. Eta zinez merezi du bizitakoak.

Testu hau esku batek idatzi duen arren, ezin eskerrak eman gabe utzi nirekin izan diren beste hamar lagunak: Iosu Huar-te (Elkarte), Oier Etxeberría (Berriozar), Iker Goldarazena (Berriozar), Sara Zapata (Txantrea), Nahia Belloso (Mendillorri), Teresa Mina (Uriz), Endika Garai (Antsoain), Guratz Azpirotz (Uitzi), Olaia Eguzkitza (Burlata) eta Hugo Busto (Burlata). Ezin ahaztu eta aipatu gabe utzi aurten etxean geratu behar izan diren Urko Erize (Osakar) eta Amaia Arangiz (Altsasu) ere.

**Berriozarko BKE Mendi Eskolako hideoak.**

laburrak egiteko aukera baino ez du ematen pistak, baina abilezia handiena dutenek gozatuko dute herrira iritsi arte.

Bertan zain ditugu zakurrak, hozka egiteko mehatxu eginez. Baina beste behin ere, kontu handiz ibilita, ez dugu ara-

jantzita, eta mendebaldetik inguratu dugu zatirik arriskutsuena. Berriz ere, 200 metro inguruko desnibela daukagu aurretik, eta lehenbiziko aldiz eski arrastoak ikusi ditugu, norbait ibili da bertan.

Ordubetea bigarren lepoa gaingitu eta Detsili mendiko tontor zabalera iritsi gara. Talaia ikusgarria da hau ere, eta lasai egiteko moduko lautadaxoa dauka gainean.

Jaitsierak hainbat aukera eskaintzen ditu, eta hasiera basotik egitea erabaki dugu. Ez da oso erabaki ona izan. Elur ederra bai, baina birak egiteko tarte gutxi uzten dute zuhaitzek. Hala ere, laster atera gara basotik, eta hasieran elur hezea aurkitu arren, berehala agertu da elur hautsa, egunero gozatzeko parada izan dugun elur hautsa, eta nahi beste bira egiteko magal luzea daukagu aurretik.

Herrira iristeko bi aukera ditugu: igotzeko erabili dugun pistatik jaistea, edo basoan murgiltzea. Bigarrena aukera ona izan ez arren, azken hori hartzea erabaki dugu. Errekatxoz betetako eremu kaotikoa da, eta atzera egin behar izan dugu. Igoera labur bat egin eta pistan gara berriz. Bira


Taldea, txakurrek lagunduta, Ushgulitik Shkarara bidean elurjausi batek utzitako arrastoaren gainean





# LA TANA DEL LUPO

## ABRUZZO ETATIK "GRAVEL" TXIRRINDUAZ



Mapa: Italia erdialdea eta ibilbideko bederazi etapak

2023ko Uztailaren 9a da, igandea, egunsentiko 6:30ak dira baina dagoeneko sargori dago. Nire txirrindukide Iñaki eta biok Fiumicinoko hotel merke eta ilun baten atarian gaude, 5 bat kilometrotara dagoen Erromako aireportu ofizialera eramango gaituen laugarren taxiaren zain. Hegazkina galtzeko arriskua DEFCON 2 alarma egoerara pasa da. Laugarren taxia? Galdetuko du irakurleak. Bai, laugarrena.

Atzo, Fiumicinoko paisaia samingarri eta distopikoan, estu eta larri, gaueko 22:00etan lortu genituen hegazkinean bizikletak eraman ahal izateko kartoizko kaxak, "in the middle of

nowhere" aurkitzen den kirol-hipermerkatu batetako langileen dohaintzari esker, benetako mirakulua. Kontua da, horren kaxa ederrak zirela, ezen ez direla sartzten, XXXL tamainako furgoneta-taxiak eskatu arren.

Laugarren hau "più grandi" izango zela esan ziguten, eta "quindici minuti" itxaroteko, baina ez ginen asko fio. Bitartean, erabat pipertu eta etsi aurretik, etorkizunerako geratuko zen gure azken 10 egunen kronika idaztea bururatu zitzaidan.

### TESTU ETA ARGAZKIAK



Iñaki Etxabe Iriondo  
(Elgoibar, 1969)

Mendizalea, alpinista, eskalatzailea, trail korrikalaria, "jai-alai" zestolari ohia eta, noski, txirrindularia. Bike packing munduan iaioa, hainbat bidaia interesgarri egin ditu: Iparraldeko lur muturra edo North Cape, Canada eta EEBBak, Maroko eta beste hainbat eta hainbat Iberiar penintsulan, Euskal Herrian eta Pirinioetan.



Ibon Serrano Lasa  
(Eibar, 1970)

Mendizale eta txirrinduzalea. Hainbat bidaia txirrinduz eta zaku-toekin ditu eginak: Euskal Herrian, Espainian, Frantzian, EEBBtako mendebaldean, India eta Nepal. Oso trebea ez den arren, marrazketa ere gustatzen zaio.



## AURKEZPENA

“Gravel” txirrinduaren modaren olatua hartu eta Italiako erdialdetik eta Abruzzo mendietatik zehar itzuli bat egin dugun 53 urteko bi “gazte” gara (Iñaki, lehen aurkezturiko laguna, eta ni, Ibon; urte askotarako).

Erroman hasi eta bertan bukatu genuen itzulia (Fiumicino, zehazki). Dena den, pasarterik aipagarriena Abruzzo eskualdetik zehar La tana del lupo edo Otsoaren babeslekua izenez bataiatu zen mendi-bizikleta itzulia izan zen.

### Mendirik garaienek 3000 metro inguru dituzte eta natura ingurune paregabea da; eskualdeak fauna eta flora endemiko berezia du

Abruzzo mendiak Italia iparraldetik hegoaldera zehar katzen duen Apenino mendilerroaren erdigunean kokatzen dira. Mendirik garaienek 3000 metro inguru dituzte (Corno Grande, 2912m) eta natura ingurune paregabea da; fauna eta flora endemiko berezia du eskualdeak. Hainbat parke nazionalen kokagune ere bada.

Lurralde interesgarri hori Italia erdialdean kokatuta egon arren, autoz Erromatik ordu eta erdira, historikoki eta kulturalki Italia hegoaldeari egokitzen zaio. Mendigune ezezaguna da, isolatua, ekonomikoki baztertua. Baina, hala ere, edo arrazoi horregatik berberagatik, erakargarritasun bereziz jantzia.

## ERRONKA

Abruzzoetako Dukea zen Luigi Amadeo esploratzailearen XIX. mendeko balentria bat izan ez zen arren, ez pentsa horren erraza izan zenik bizitzaren udazkenean sarturik gauden bi lagunontzako bidaiari hau antolatu eta burutzea.

Alde batetik, gutxienez egoera fisikoa eskatzen duen ibilbidea izan zen, eta guretzako ez da horren erraza sasoiko mantentzea.

Bestetik, gure adinarekin, sakelako telefonoko teknologia berrietara eta digitalizazio etengabera egokitu behar izana ez da gure indarguneetarikoa; eta gaur egun, guretzako tamalez, bidaiatzeko tresna ia “ezinbesteko” bihurtuarazi digute. Horretaz gain, ezinegon horri presbiziari lotutako bionikusmen arazoak gehitu behar zaizkio.

Aje biologiko hauetaz guztietaz gain, gure adin tarteko askok jasaten dugun egungo gizarteko beste madarrikazio bat kudeatu beharra suertatu zitzaigun: denbora falta. Hainbat eta hainbat lotura eta konpromiso, lanorduek eta egutegia, familia, bikotekidea, seme alabak,... ez da ez erraza opor egun apur batzuk antolatzea eta asmo handiegia ez izatea.

Horregatik, bidaiari arazo handirik gabe egin izana izarren lerrokatze ezohiko baten ondorioa izan zela pentsa dezakegu (azken une kritiko horretara heldu aurretik, noski).



Ibon, Maiellako parke nazionaletik

## IBILBIDEA

Has dezagun bidaiari. Guztira 790 km inguru egin genituen arren, La tana del lupo ibilbideari dagozkion kilometroak gutxi gorabehera 390 km izan ziren. Aipatu beharra dago ibilbidea ez dagoela inolaz ere ez in situ markatua, eta, ondorioz, interneteko tracka eta GPSaren laguntza ezinbestekoa dela bertatik bertara jarraitzeko.

Kontakizunari dagokionez, etapaz etapa azaltzea baino nahiago izan dugu guretzako *highlight* nagusienak izan direnak deskribatzea. Jarraituriko ibilbidea eta etapen ezagutza nagusiak zehazteko honako mapa hau eta taula gehitu ditugu, La tana del lupori dagozkion etapak nabarmenduz.

Mendizaletasunaz haratago, etapa erakargarrienak nabarmentzeaz gain, lehenik eta behin Erroma hiria txirrinduan bi aldiz zeharkatu izana azpimarratu nahi izan dugu. Biotako inor aurretik bertan izan barik geunden, eta gure asmoa berau ahal bezain laster igarotzea zen, alde aurretik ez





Īiaki, Campo Imperatoreko goi lautadak eta mitxoletak Strade Bianche bazterretan

baitzigun ezer iradokitzen hiri ezezagun honek (bueno, nola ez, "calamari a la romana" zizka-mizka ez bada!). Edozelan, "Città Eterna" diotena gurutzatzean dezente harritu gintuen zahar xamarrek ziruditen hainbat monumentu bitxi aurkitu izanak. Bilboko "Puppy"-rekin konpara daitekeen ezer ez, noski, baina nolabaiteko meritua aitortu beharko diegu garai bateko erromatarrei.

Txantxa kaxkarra hori alde batera utzi eta Erromatik irten bezain laster ekialdera abiatu ginen, Pescarara doan "Via Tiburtina" bidea jarraituz. Lazio eskualdeko lautada jendetsua Tivoliraino hedatzen da. Bertatik altuera hartzen hasi eta baso eta mendi itxiz osatutako lurralde bakartiagoetan barneratu ginen, ekaitzpean blai-blai eginak, Abruzzoen bihotzera heldu arte. Hurrengo eguerdian Rocca di Cambio herrixkara heldu ginen, eta han egin genuen bat La tana del luporen lorratzarekin.

Ordura arte errepidez eginiko ibilbidea izan zen, baina, gune horretatik aurrera, Strade Bianche izendaturiko bidexkan zehar, 3. mailako eta trafiko eskaseko errepide asfaltatuak tartekatzen hasi ginen. Strade Bianche delakoa asfaltatu gabeko kareharri txintxarriz eratutako bidea da, baina, edozein bide zidor tamalgarrirekin alderatu daiteke. Bide horietan zehar, ibilbidearen %95 inguru bizikletaz egin daiteke oro har; eta bazter ezkutu ederretatik joan arren, es-

fortzu fisiko handia eskatzen dute, batik bat zakuto astunak generamatzala kontuan izanik.

Horrela bada, behin La tana del lupon murgildurik, erlojuaren orratzen zentzuan abiatu ginen gure "giro abruzzesea" egitera, paisaia izugarri ederrak eta zenbait parke nazional igaroz (Gran Saso, Maiella, Abruzzo eta Lazio e Molise). Iluntzetan, leher eginik, baina izpiritua aseberetik eta bihotza puzturik, herri txikietan ostatu hartzen genuen, bertako gutizia enologiko eta gastronomikoak dastatzeko aukera paregabea aprobetxatuz. Dena den, sukaldaritza italiar entzutetsuaren baitan, pizza eta pasta gehiegi dagoela iruditu zitzaigun; entsalada freskoak, zopak eta arrautza frijituak faltan bota genituen. Garagardo eta Abruzzoetako ardoari buruz berriz, kexarik ez.

---

**Baso estuek eta paisaiaren berdeak liluratu egin gintuzten, pagadiak, pinuak, lizarrak, izeiak, gaztainondoak, astigarrak, haritzak, elorriak, pikondoak eta beste hainbat zuhaitzek esaterako**

---

Handik bost egunetara, behin bira bukatuta, hegoaldetik itzuli ginen Erromara. Apeninoak atzean utzi bitartean, be-



netan ikusgarria egin zitzaigun Monti Sibruini izeneko parke naturala. Ilunabarrean, Filettinora bidean igotako Serra Sant'Antonio portua ere oroimenean geratuko zaigu, zuen edertasun eta orografia deskribaezinagatik.

## ABRUZZOAK

Abruzzoen paisaia labur deskribatu beharra balego, zenbait ezaugarri aipatu beharko genituzke.

Alde batetik, eraketa orografiko mailakatua. Sarritan, 400 metroko altueran hasi eta 1600 metroko altuera bitartean ibiltzen ginen. Asko sinplifikatuz, esango genuke 400 metroko altuera igo edo jaitsi orduko goi lautada edo "plateau" izugarri batekin topo egiten genuela. Mastin arrazako artzain txakur itzel eta mesfidatiez zaindutako artaldeak nahiko ohikoak ziren paisaia eurasiar bakarti erraldoi haietan.

Baso estuek eta paisaiaren berdeak ere liluratu egin gintuzten. Orografia eta altueraren arabera aniztasun handia aurkitu genuen, batik bat pagadiak, baina, baita ere pinu, lizar, izei, gaztainondo, astigar, haritz, elorri, pikondo eta beste hainbat zuhaitz eta zuhaitzi mota ere. Adriatikoko magalerantz, oli-

bondoak eta mahasti sailak ere bazeuden; eskualdea moskatel mahats motaren jatorria omen da, eta Abruzzoetako ardo biziak duen sona, benetan merezitakoa dela esan dezakegu.

Fauna berriz, aberatsa. Maiz gurutzatu ginen azeri, orkatz, orein eta basurde saldoekin. Hartz eta otsoen presentziagatik ere ezagunak dira Abruzzoak, guk ikusi ez genituen arren. Gaitz erdi.

### Hango naturaz gain, bertako jendeak ere hunkitu egin gintuen

Bestalde, harritzekoa egin zitzaigun aipaturiko bakardadea, Errromatik horren gertu egon arren. Ikusi genituen turista apurrrak mendizaleak ziruditen, eta bainuetxeengatik ezagunak diren herri gutxi batzuetan elkartzen ziren. Inguru haietako herriak jasaten ari diren biztanleriaren zahartze eta gutxitzearen lekuko ere izan ginen. Pena handia ematen zuen, ekiditea ezinezkoa den patua balitz bezala. Dena den, ezin ukatu horrek dakarren xarma, eraikuntzen arkitektura apal baina senda, eta aldapetan eraikitako edota eskegitako eraikin ikusgarriak ere.



Iñaki, presbisia lagun duela, Corno Grande mendia atzean

23/08/12



Eta "abruzzese" herritarrei buruz zer esan? Italiako hainbat estereotipo hautsiz, jende lasai eta apala aurkitu genuen orokorrean (gidatzen izan ezik). Jarrera lasai hori nabarmen zuten euren gaitasuna Montferrateko Salvatoreren "pidgim" sasi-erromantzea zerabilten morroirengana zuzendu ginenean (-Bon giorno, noi due no parliamo italiano mai piano piano se arriva lontano. Prego, una questione ...). Honela, hainbat elkarrizketen bidez, eta hala nola, kultura mediterraneo berezia duten zenbait herritar jantzi, jator eta duin ezagutu genituen.

Historiaren ezagutzari zegokionez, Pedro Bereterra (Pietro Navarro, 1460-1528) erronkariar "condotieroak" lurralde haietan eginiko gerrak ezagun egiten zitzaizkien; bazeukaten nolabaiteko herri kontzientzia, eta bitxia zen maiz transmititzen ziguten

nostalgia historikoa. Izan ere, XIX. mendeko "rissorgimento" edo Italia modernoaren eratzak ez omen zien gauza onik ekarri hegoaldeko herritarrei. "Pizza" bat muturra okertzen bazitzaigun ere, Borboien aurreko erresuma zeukaten biziki gogoan.

Ezin uka beraz, hango naturak eta jendeak hunkitu egin gaituela, ezinbestean. Are gehiago, urteen poderioz geratzen zaigun itxaropen eta babesleku ideologiko bakarrenetarikoa erromantizismoan oinarritzen dela kontuan izanik.

## ZENBAIT IRADOKIZUN

Lehenik, berriro gogorarazi La tana del lupo ez dela oraindik zorionez gentrifikatutako ibilbide ezaguna, beraz GPSa eta tracka eskuragarri izatea ia derrigorrezkoa dela.



23/08/01



Bestalde, "gravel" motako txirrindua agian ez da egokiena La tana del lupo soilik nahi bada egin, izan ere, Strade Bianche eskatzen duen maila teknikorako gehiago egokitzen baita mendiko txirrindua. Dena den, "gravelak" guri independentzia polita eman digu Erromatik hasita asfaltozko kilometro andanak nahiko erraz egiteko. Hala ere, izan kontuan errepide asfaltatuetak bide bazterrak nahiko estuak direla, eta gidari italiarrak orokorrean ez daudela ohituak txirrindulariekin bidea partekatzen.

Ekipamenduari dagokionez, guk, bibakak egiteko, kanpin denda, lo zakua eta sukaldeko zenbait tramankulu eraman genituen, eta esan beharra dago, asko alferrik. Alde batetik, edozein herritan aurki daitekeelako ostatu egokia atsedean hartzeko, eta bestetik, Italian ez delako horren erraza gaua bide bazterrean igarotzea.

Hegaldiari dagokionez, txirrinduaren garraioa ez da errazegia izan, ikusi besterik ez dago zein egoeratan geunden artikulu hau idazten ari nintzenean. Norbere gogoetarako utziko dugu azken 30 urteotan teknologia berrien hedapenak, azpiegitura erraldioen eraikuntzek eta garraio modu berriek nonahi aipatzen den "mugikortasuna" benetan erraztu ala zaildu egin ote duten.

Oztopoak oztopo, bidaia benetan xarmagarria, aberasgarria eta aholkatzeko modukoa izan da. Bizikletaz edo gabe,



Iñaki "Gravel" txirrinduan

edozein naturazale edo mendizale damutuaraziko ez duen ingurunea.

Badator taxi bat. Iñakik dio aurreko berbera dirudiela, DEFCON 1?



Zenbait "kinto" abruzzese eta biok. Atzean Sirente mendiak (Abruzzoetako Dolomitak)

ETAPA	EGUNA	NONDIK-NORA	LA TANA DEL LUPO	DISTANTZIA (KM)	STRADE BIANCHE (%)
1	2023/06/30	Fiumicino-Erroma		30	0
2	2023/07/01	Erroma-Cese		130	0
3	2023/07/02	Cese-Rocca di Cambio		40	0
		Rocca di Cambio-Preturo	X	40	60
4	2023/07/03	Preturo-Castel del Monte	X	70	70
5	2023/07/04	Castel del Monte-Popoli-Musellaro	X	80	60
6	2023/07/05	Musellaro-Villeta de Barrea	X	80	60
7	2023/07/06	Villeta de Barrea-Secinaro	X	80	40
8	2023/07/07	Secinaro-Rocca di Mezzo	X	40	70
		Rocca di Mezzo-Filetino		80	0
9	2023/07/08	Filetino-Erroma-Fiumicino		120	0

INFORMAZIO GEHIAGO



TRACKA





## TEXTO Y FOTOS



Kepa Lizarraga Sainz

Socio de Ganguren M.T. y asesor médico de la BMF y EMF. Publica artículos en Pyrenaica desde 1981.



Raul San Román Otegi (Biti)

Realizador y documentalista de la Productora Audiovisual Ikaika Media. Miembro de la Asociación Dar-Dar.



Unai Llantada Vivanco

De Zalla (Enkarterri). Guía de Montaña. Apasionado de los viajes y la montaña, ha completado el proyecto 7 cumbres 7 continentes. Miembro de la Asociación Dar-Dar.



Mikel lanza el 5º grito desde Kala Pattar hacia el Everest

# LA MONTAÑA ES UN LUGAR MÁGICO

"5 gritos desde 5 cimas en favor de las personas que padecen ELA"

Refugio de rebeldes con causa, cobijo de personas incomprendidas y púl-pito para mensajes que brotan de lo más íntimo.

En 2017, en la asociación "Dar-dar" de Zalla, nació un proyecto para lanzar 5 gritos desde 5 cimas en favor de las personas que padecen esclerosis lateral amiotrófica, de sus familias y gente allegada. A gritos, y desde lugares señalados, se pedía a la sociedad que dedicara más recursos a buscar una solución para aliviar el sufrimiento de esta cruel enfermedad conocida como ELA. Y las montañas que amamos sirvieron de lienzo para esos mensajes; para despertar conciencias.

El primer grito fue lanzado el 5 de diciembre de 2018 desde la cima del monte Vinson, de 4892 metros de altitud y ubicado en la Antártida. El frío helador y los fuertes vientos no impidieron que la cordada virtual formada por Pablo Olmos, en silla de ruedas, y Unai Llantada, separados por más de 14 500 kilómetros, pero mentalmente unidos en ese objetivo, consiguiera llegar a la cumbre.

El panorama gélido que envolvió la expedición simbolizó las emociones de las personas enfermas al recibir el terrible diagnóstico.

## El primer grito fue lanzado [...] desde la cima del monte Vinson

La pandemia generada por la COVID-19 obligó a cambiar de planes y, en lugar del objetivo inicial para el segundo grito, que era el Ama Dablam, se fijó como meta la más alta cima del Estado. La alternativa fue ascender al Teide, con sus 3715 metros de altitud, siguiendo la ruta O4 desde la orilla del mar.

Jaime Lafita y Miguel Ángel Roldán (Mikel), ambos pacientes con ELA y miembros de las asociaciones "Dale Candela a la ELA"



y “Saca la lengua a la ELA”, respectivamente, se enfrentaron decididos a las duras rampas del volcán.

Tras dos intensas jornadas, el 20 de octubre de 2020 consiguieron lanzar su grito desde la cumbre, y el fuego del interior de la tierra que pisaban fue una alegoría de la rabia que sentían ante el deterioro de su organismo.

Aún bajo la dictadura de la COVID-19, el tercer reto condujo nuestros pasos a una de las montañas más emblemáticas de los Picos de Europa: el Picu Urriellu.

A pesar de no tener experiencia en escalada, Mikel estableció una íntima relación con la roca y, por los nevados resaltes de la Canal de la Celada, llegó a la base de la vía clásica de los Martínez.

## El fuego del interior de la tierra que pisaban fue una alegoría de la rabia que sentían ante el deterioro de su organismo

El 31 de mayo de 2021, tras superar más de 4 horas de agotador esfuerzo, lanzó desde los 2519 metros de la cumbre hacia los profundos valles un grito frente al olvido y la soledad.

La cuarta fase del proyecto tuvo a Jaime Lafita como representante de quienes, directa e indirectamente, padecen ELA. Dado que en esta enfermedad son las neuronas

3<sup>er</sup> grito en la cima del Urriellu



Jaime ante el Parlamento Europeo en el 4<sup>o</sup> grito

motoras las afectadas, como metáfora, se propuso hacer un viaje sin utilizar motor alguno para llegar a Bruselas y lanzar un grito desde la “Cumbre Europea”, con sus escasos 13 metros de cota.

Más de 360 km de navegación a vela para cubrir una primera etapa hasta el puerto de La Rochelle, y 900 duros kilómetros más sobre una bici tándem fueron recorridos.

El 21 de junio de 2019, día mundial de la ELA, fue recibido por el presidente del Parlamento Europeo y otras autoridades, lo que magnificó el alcance de esta iniciativa que buscaba enaltecer el apoyo de las personas que rodean y cuidan a quienes sufren la enfermedad.

## Quedaba una etapa por cubrir: gritar junto a la cima más elevada del planeta

Quedaba una etapa por cubrir: gritar junto a la cima más elevada del planeta. Miguel Ángel Roldán entrenó durante meses para soportar un largo viaje del que los últimos 9 días le llevarían, a pie por Nepal, desde los 2860 metros de Lukla hasta los más de 5400 metros de las laderas de Kala Pattar.

El valle del Khumbu fue testigo de muchas horas de esfuerzo e incertidumbre hasta poder afrontar la oscura silueta del Everest y, el 24 de octubre de 2022, Mikel lanzó un desgarrador quinto grito pidiendo recursos para investigar la enfermedad y ayudar a quienes la sufren.


Como colofón a este último viaje, se retomó el proyecto que los virus habían truncado unos años antes: ascender el Ama Dablam, la cumbre favorita de Pablo Olmos. Y la cima ofreció su cara más amable, accediendo a servir de pedestal para un proyecto tan solidario.

Sin duda, ese natural entorno que nos apasiona hizo que cuantos colaboramos en la preciosa iniciativa de los 5 gritos por la ELA, ascendiendo cinco cumbres en cuatro continentes, volviéramos mejores de lo que fuimos.

Porque entre sus pliegues y nieblas, la montaña esconde magia y humanidad.



# NUESTRA HISTORIA (VII): TIEMPOS MODERNOS



J.M. Regil, A. Landa y P. Udaondo en Chamonix (J.M. Regil)

En febrero de 1958, tras 17 años en el cargo, Ángel Sopena cedía su responsabilidad al frente del montañismo vasco. Y, como refrendaría en sus palabras de despedida, "si ha terminado una etapa más o menos fecunda, otra se abre bajo los mejores auspicios". El relevo lo recibía el guipuzcoano Pedrotxo Otegi, y, como predecía Sopena, iba a marcar una nueva época.

El primer indicador de estos nuevos tiempos se escenificaría en 1959 en el Club Deportivo Eibar. Con la voluntad de fundar el primer Grupo Vasco de Alta Montaña, en sus locales se reunieron los nombres que iban a ser los protagonistas de la transformación hacia la modernidad del alpinismo vasco. Se estaba forjando una generación única, que en tres décadas, iba a llevar el nombre de Euskal Herria hasta las cimas más lejanas y elevadas del mundo.

Esa voluntad de Otegi de mirar más allá de los Pirineos, se vería reforzada con las sucesivas visitas en

## TEXTO



Antxon Iturriza  
(Donostia, 1948)

Montañero y cronista de montaña, ha escrito miles de artículos y una docena de libros, entre los que destaca su trilogía "Historia testimonial del montañismo vasco". Actualmente es miembro de la Fundación EMMOA para la creación del Museo del Montañismo Vasco.

los años sesenta de algunos alpinistas de prestigio internacional. Figuras como Terray, Rébuffat, Robbins y Cassin, relataron sus hazañas en nuestras ciudades y pueblos descubriendo montañas y técnicas que sólo se conocían por los libros.

## PIRINEOS Y PICOS: GRANDES DESAFÍOS

Los nuestros aprendieron del ejemplo de aquellos mitos y pronto empezaron a abordar objetivos que hasta entonces parecían inalcanzables.

